



AKTEA/10

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
(2024-03-11)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2024-03-11 (Asteartea)
Lekua:	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
Hasiera-ordua:	07:46
Amaiera-ordua:	07:53
Alkate-Presidentea:	NEMEH SHOMALY NADIA
Batzordekideak:	URIARTE ANASAGASTI VICTOR ORMAZA TARANTINO ARANTZA GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE CARUEZO UGALDE MAITE
Bertaratu ez direnak:	ORTUZAR BUTRON XABIER ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA
Idazkaria:	LEJARRAGA URIARTE JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E8000F09EE00H6I5Y2N1U3X7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
11/03/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/03/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/03/2024
13:18:25

DOCUMENTO: 20240985582

Datea: 11/03/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidea: Erregistro nagusia



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2024-03-05 TGB (09)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Udal azokako 23. postua esleitzea onartzea.
- 4.- Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen 2024. urteko deialdiak zabaltzea onartzea.
- 5.- Bermeoko Udalaren eta INNOBASQUEren arteko lankidetzaz-hitzarmena (HAZINNOVA) sinatzea.
- 6.- 35/2024 epaiaz berri ematea.
- 7.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 8.- Eskari eta itaunak.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2024-03-05 TGB (09)

Bertaratutako batzarkideek 2024ko martxoaren 5eko 09/2024 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERREDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIARIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- UDAL AZOKAKO 23. POSTUA ESLEITZEA ONARTZEA.

Xedea



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F09EE00H6I5Y2N1U3X7

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/03/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/03/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/03/2024 13:18:25

DOCUMENTO: 20240985582
Data: 11/03/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Udal azokako 23. postua 14.025.395-H NAN zenbakidunari zuzenean esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko azaroaren 21ean hartutako erabagin bidez, udal azokan hutsik dauden postuen emakidak esleitzeko deialdia onartu eban.

Bigarrena: Iragarkia BAOn argitaratu zan (230. iragarki zenbakia), 2023ko azaroaren 30ean, 15 laneguneko epea emonez proposamenak aurkezteko.

Hirugarrena: Proposamenak aurkezteko epea 2023ko abenduaren 27an amaitu zan eta ez zan proposamenik aurkeztu.

Laugarrena: 2024ko urtarrilaren 9ko Tokiko Gobernu Batzarrak, udal azokako postuen emakidak esleitzeko deialdia hutsik deklaratu eban.

Bosgarrena: 2024ko otsailaren 12ko 2.302 sarrera erregistrodun idazti bidez, 14.025.395-H NAN zenbakidunak, 23. postua esleitzeko eskaria aurkeztu eban.

Seigarrena: 2024ko otsailaren 13an, 23. postua esleitu ahal izateko agiriak aurkezteko errekerimendua egin jakon 14.025.395-H NAN zenbakidunari eta, horretarako emondako epean, 14.025.395-H NAN zenbakidunak eskatutako agiriak aurkeztu eban.

Argudioak

Lehenengoa: Udal azokako postuen emakidak esleitzeko onartutako Administrazio-Klausula zehatzen agiriaren 3. atalaren arabera, postu libreak esleitzeko prozedura izapidetu ondoren, postu horietako batzuk hutsik gelditzen badira, deialdia ebatzi eta urtebeteko epean, postu horiek zuzenean edozein pertsona interesaturi esleitu ahal izango jakoz, atal horretako baldintzak bete ondoren.

Eta interesdunak eskatutakoak bete dauzenez, zuzeneko esleipena egin leike.

Bigarrena: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 9. atalaren arabera, ahalmena alkateari jagokio. Baina 2024ko otsailaren 28ko 926. Alkatetza Dekretu bidez, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatu zan.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Udal azokako 23. postua 14.025.395-H NAN zenbakidunari



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F09EE00H6I5Y2N1U3X7

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/03/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/03/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/03/2024 13:18:25

DOCUMENTO: 20240985582
Data: 11/03/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



zuzenean esleitzea onartzea.

BIGARRENA: Erabakia interesdunari jakinarazotea, emakida kontratua sinatu daien.

HIRUGARRENA: Ebazpen hau Bermeoko Udaleko kontratugilearen profilean argitaratzea.

LAUGARRENA: Erabakia Behargintza Sailari eta ATBri helaraztea, jagokozan ondorioetarako.

BOSGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabakiaren barri emotea.

Momentu honetan Arantza Ormaza sartu da batzar gelara.

4.- BERMEOKO KULTUR TALDE, ELKARTE ETA PERTSONA FISIKOEI URTEKO KULTUR ETA JAI EKIMENAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZEN 2024. URTEKO DEIALDIAK ZABALTZEA ONARTZEA.

Xedea

Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen 2024. urteko deialdiak zabaltzea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea erabaki dau. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan.

Bigarrena: 2023ko martxoaren 31ko Osoko Bilkurak, Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen deialdiaren oinarri zehatzak onartu dauz eta erabaki honen iragarkia 2023ko apirilaren 28ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da

Hirugarrena: 2023ko abuztuaren 2ko Osoko Bilkuran, Bermeoko kultur talde eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri zehatzen balorazio batzordearen eraketaren aldaketa onartu da eta erabaki honen iragarkia 2024ko otsailaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

Laugarrena: 2024ko otsailaren 29an, Kontuhartzaile andreak aldeko fiskalizazio txostena egin du.

Argudioak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F09EE00H6I5Y2N1U3X7

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/03/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/03/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/03/2024 13:18:25

DOCUMENTO: 20240985582
Data: 11/03/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



Lehenengoa: Gastuek beharrezko kontsignazioak dauzkate (RC 2024/000176, RC 2024/000177 eta RC 2024/000178)

Bigarrena: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazioatutakoak.

Hirugarrena: Dirulaguntzen deialdiak onartzeko eta ebazteko ahalmena Alkatetzarena da baina 2024ko otsailaren 28ko 926 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu da.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen 2024. urteko deialdiak zabaltzea onartzea, eranskinetan jasotako eran.

BIGARRENA: Deialdi hauen publizitatea Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bideratzeko agindua ematea Kultura eta Hezkuntza Sailari.

HIRUGARRENA: Deialdi hauen publizitatea Bermeoko Udalaren web gunean txertatzeko agindua ematea ATB Sailari.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

5.- BERMEOKO UDALAREN ETA INNOBASQUEREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA (HAZINNOVA) SINATZEA.

Xedea

Bermeoko Udalaren eta INNOBASQUEren arteko lankidetzahitzarmena (HAZINNOVA) sinatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalaren ardatz nagusienetarikoa bat herriaren garapen ekonomikoa sendotzea da eta helburu hau lortzeko ezinbestekoa da enpresen lehiakortasuna bultzatzea.

Lankidetzahitzarmen honekin Bermeoko mikroenpresa industrialetan (10 langile baino gutxiagoko enpresa industrialak) ikuspegi berritzailea bultzatu nahi da, enpresak lehiakorragoak izan daitezen, mikroproiektu berritzaileak bultzatuz.



Bigarrena: Hazinnova programa negozioen produktu eta prozesuetan berrikuntza ez-teknologikoko mikroproiektuak egitean datza. Hainbat jarduera-eremu daukaz: ekonomia eta finantzak, produkzioa, logistika, bezeroak, pertsonak, merkatu berriak, produktua eta barneko prozedurak. Programa erraza, azkarra (50 ordu) eta doakoa da ETEentzat, euren lehiakortasuna areagotzeko eta denbora-tarte labur batean inpaktu handiko emaitzak lortzeko helburua daukana.

Hirugarrena: Mikroenpresak, orokorrean, lehiakortasuna hobetzeko programetatik kanpo geratzen dira langile gitxi edota fakturazio baxua izaten dabelako. Horregaitik, Hazinnova programa aukera bikaina izango da gure esparruko mikroenpresei laguntza eskaintzeko.

Laugarrena: Bermeoko Udalak Hazinnovaren proiektuaren eragile gisa, Innobasqueren aldetik jasoko leukeen zenbatekoa aldatu egingo da programan parte hartzen dauan enpresa-motaren arabera:

- Urriaren 29a baino lehen Hazinnova programaren barruan lehenengo aldiz mikroproiektu bat martxan jarri dauan enpresa bakoitzeko, 600 €
- Urriaren 29a baino lehen mikroproiektu bat martxan jarri dauan enpresa bakoitzeko, 300€ Hazinnova programan parte hartzen dauan lehenengo aldia ez bada.

Zenbateko hori jaso ahal izateko, gitxienez, 5 mikroproiektu jarri beharko dira martxan eta, gehienez, 15.000 € jaso ahal izango dira.

Bosgarrena: 2024ko otsailaren 22an, Behargintzako Zuzendariak hitzarmenaren justifikatze memoria egin dau.

Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen dau bere 5. artikulua, Toki Errejimenaren Testu Bateratua onartzen dauan 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauan 39/2015 Legearen 86. artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, bere 17. artikuluan, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. artikulua eta Sektore Publikoaren Errejimen Juridikoa arautzen dauan 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengokoak, eta Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 28.1 artikulua hartu dira kontutan.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000F09EE00H6I5Y2N1U3X7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/03/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/03/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/03/2024 13:18:25

DOCUMENTO: 20240985582
Data: 11/03/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.s) artikuluan jasotakoaren arabera, alkateari jagoko, baina 2024ko otsailaren 28ko 926. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta.

Hirugarrena: Innobasque (irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua) eta Bermeoko Udalaren arteko lankidetzaren eta horren ondorioz Bermeoko Udalak eskuratuko dauen dirulaguntzaren baldintzak zehaztu eta hitzartzea ezinbestekoa ikusten da, alde bien betebeharrak eta eskubideak jasotzeko, besteak beste.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: HAZINNOVA ekimena egiteko, Bermeoko Udalaren eta INNOBASQUEren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

6.- 35/2024 EPAIAZ BERRI EMATEA.

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 35/2024 dekretuaren berri eman zaio

7.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8000F09EE00H6I5Y2N1U3X7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
11/03/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/03/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/03/2024
13:18:25

DOCUMENTO: 20240985582

Datea: 11/03/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Alkatetza dekretuen berri eman da.

8.- ESKARI ETA ITAUNAK.

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Orri oinean sinatzaileak eta datak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8000F09EE00H6I5Y2N1U3X7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
11/03/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/03/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/03/2024
13:18:25

DOCUMENTO: 20240985582

Fecha: 11/03/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

